

TXAKURRENTZAKO BALDINTZAK JAZZALDIAN

Txakurren presentzia JAZZALDIAN agertokiak okupatzen duen espazioaridagozkion beharizanek eta araudi propioak baldintzatzen dute. Espaziohorietako batzuk publikoak dira (hau da, Donostiako Udaleko "Animaliakbestu eta edukitzeko udal ordenantza" aplikatu behar zaie) eta bestebatzuk pribatuak (non bete beharreko hainbat okupazio- eta izikidetzara indarrean dauden):

- Esparru pribatuetako agertokiak: Txakurren presentzia galarazita dago erabilera anitzeko areto kultural eta esparru pribatuetan, laguntzatzakurren kasuan izan ezik, (Gida txakurrak; alerta medikokoak; gorren, autisten eta mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntza-txakurrak, etab.) ahalmen urriko pertsonentzako laguntza-txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 LEGEAREN arabera. Beraz, oro har, txakur arrunten presentzia ez da ametituko hurrengo hauetan:

- Kursaal Auditorioa (itsuaurreko txakurrarekin joateko, berariazko sarrera erosi beharko da "mugikortasun urriko pertsonentzat - 17. ilara").
- Victoria Eugenia Antzokia
- San Telmo Museoa
- Kutxa Kultur Tabakalera

- Agertoki itxi eta arautua: Espazio itxi arautuetan esparru kultural pribatuetako araudi berbera aplikatuko da, hau da, berorien barruan ez da onartuko txakurrik (laguntza-txakurrak salbuetsita):

- Trinitate Plaza

- Hiriko bide publikoan dauden aire libreko agertokiak: Udal araudiaren arabera, txakurren presentzia baimenduta dago. JAZZALDIAREN kasuan, animalia presentzia, kontzertuetan, higiene-, osasun- eta bizikidetzara mendu egongo da (alegia, egoten utziko zaie baldin eta beren jokabideak ez badu ekitaldiaren garapen normala eragozten). Animalia lotuta eraman beharko da, eta ezingo du gorotzik ez gernerik egin ekitaldi garatzen den esparruan:

- Kursaleko Terrazak